


Pandemiaren eragina ur kontsumoan

AMVISAK kuantifikatu egin du COVID-19aren pandemiaren alarma egoerak eta ezarritako neurriek ur kontsumoan izan duten eragina. Martxotik irailera bitartean hirira bideratutako ur bolumena aurreko urtekoaren berdina den arren, **uztaileko eta urriko fakturazioek aldaketa erakutsi dute kontsumoaren ohiko ereduaren inguruan**, konfinamenduan gehiago nabarmendu zelarik, baina baita konfinamendua arindutakoan eta udako hilabeteetan ere.

Horrenbestez, **etxean gelditzeko betebeharrak eta jarduera ekonomikoaren galerak etxean fakturaturako kontsumoa igotzea eragin dute, espero zen bezala, eta jarduera ekonomikoaren kontsumoa nabarmen murriztea.**

Hurrengo grafikoan eguneroko kontsumoaren aldaketaren datuak erakusten ditu, 2019arekin alderatuta, bi kasuetan.

Etxe kontsumoa



Merkataritza, industria eta zerbitzu kontsumoa



SARS-CoV-2aren jarraipena ur zikinetan



Krispiñako UZAK hartzen dituen ur zikinaren laginen aste-roko analisiak jarraitzen du, SARS-CoV-2aren karga birikoa detektatzeko, gaixotasunaren hedapenaren aurrean alerta goiztiarreko mekanismo bat ezartzeko.

13 astez Euskal Autonomia Erkidegoko araztegiatan birusaren material genetikoa hautatuz eta kuantifikatuz jardun ondoren, abuztuaren hasieratik izandako SARS-CoV-2 emaitza positiboak nahiko egonkor mantendu dira, aurreko asteekiko aldaketa txiki batzuekin, eta, **oraingoz, ezin izan da harreman argirik ezarri UZAetan hautemandako birus kantitatearen eta egun edo aste batzuen buruan biztanleei egindako PCR positiboaren kopuruaren artean**. Harreman hori ezartzeak ahalbidetuko luke karga birikoaren igoera esanguratsuak alerta goiztiar moduan erabiltzea, baina oraindik inkognitak eta interferentziak daude erabilitako metodo analitikoari, ur zikinaren laginei beraiei, datuen urritasunari eta interpretazioari dagokienez, ezinezkoa izanik oraingoz emaitza ziurrik lortzea.

Sareak berritzeko obra berriak



Azken hiruhilekoan zehar hornidura eta saneamendu sareak berritzeko obra garrantzitsuetako batzuk burutu dira, eta, ondorioz, hiriko zirkulazioan eragiten zituzten eragozpen eta gorabeherak amaitu dira. Konfinamenduak lagundu zuen, zenbait egoeratan, obrak bizkortzen eta hasieran aurreikusitako epean baino lehenago amaitzen.

Gaur egun interbentzio hauek ari dira egiten:

- Sareak berritzea Florida, Zumakadi ibilbide, Araba eta Salbaterrabide kaleetan, besteak beste, %80 exekuzio mailarekin, eta afekzio nagusiak eta BEI eta Salbururako tranbiaren obrak ia-ia amaituta.
- Txagorritxu auzoko sareak berritzea, Txagorritxu ospitalearen inguruan hasita, eta Tomas Zumarraga Dohatsuaren eta Txile kaleetan. Esleipenaren aurrekontua 4,8 milioi euro ingurukoa da, eta aurreikusitako exekuzio epea 2 urte baino zerbait gehiagokoa da.

Duela gutxi, halaber, Larragana kaleko eta Bergarako Ateko saneamendu sarea berritzea esleitu da, milioi bat euroko aurrekontuarekin, eta 7 hilabeteko exekuzio epearekin.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea:

info@amvisa-futura.org